

**ZUHAITZ GURRUTXAGA** (Realeko atzelaria)**TOSHACKEN DEIA**

«Ez nuen espero, baina entrenatzaileak ostegunean badaezpada erne egoteko esan zidan»

REALA B

«Berriz ere bigarren taldearekin jokatzeari ez naiz damutzen, erritmoa mantentzen laguntzen dit»

MOTIBAZIOA

«Debuta egin nuen eguneko gogo berberarekin egongo naiz, baina ez horren urduri, lasaia egongo naiz»

REALA. Asteazken zehar kili-kolo egon ondoren, Kvarme deialditik kanpo geratu da azkenean

Betisek du orain garrantzia

Nihaten kontua gorabehera, ez da ahaztu behar txuri-urdinak aspaldian beheko postuetatik irteten nahian dabilzan bitartean Betis lidergoa eskuratzeko borrokan murgilduta dagoela



PABLO S. QUIZA

Edgaras Jankauskasek gol bolada onari eutsi nahi dio gaur Anoetan.

Jon Balenziaga | **DONOSTIA**

Gezurra badirudi ere, talde txuri-urdinak gaur Espainako Ligari dagokion neurketa du, eta ez nolanahikoa gainera. Nihaten balizko fitxaketa dela eta, norgehiagoka honi ez zaio duen garrantzia eman. Denboraldi hasiera bikaina egiten ari den Betis izango du aurkari. Juande Ramosek entrenatzen duen taldea lidergoa lortzeko borrokan ariko da gaur; Realak, aldiz, azken postuetatik ihesi dabil ia-ia denboraldia hasi zenetik. Iragan jardunaldian bezala, talde andaluziar bat izango du parean. Malagaren aurka egin zutena baina puska bat gehiago egin beharko dute txuri-urdinek, Betis mendean hartu nahi badute.

Valentziaren aurka neurketa ona egin zutela eta, bolada horri eustea da orain txuri-urdinen asmoa. Toshackek herenegun «antzeko» neurketa izango dela iragarri zuen. Valentziaren aurka bezala, Betisi irabazteko ere pazientzia beharko dutela nabarmendu zuen. Galestarrak hainbat zailtasun ditu hamaika-koan. Kvarmek min hartu zuen iragan jardunaldian Malagaren aurka jokaturiko neurketan, eta deialditik kanpo geratu da. Aste honetan, apenas entrenatu den taldekideekin batera. Ostiralean eta atzo aritu zen besteekin; aurreko egunetan, aldiz, korrika baino ez du egin. Kvarmeren ordeiz Gurrutxaga gaztea ariko da, hala esan baitzuen Toshackek

herenegun. Elgoibartarra azken neurketak Real B-rekin jokatzen ari da, eta gaur debuta egin zueneko gogo eta ilusio bera izango duela adierazi zuen atzo.

Gabilondo aulkian

Zelai-erdian ere bazituen hainbat zailtasun Toshackek, baina atzo ikusitakoaren arabera Gabilondo geratuko da aulkian. Galestarrak Idiakez eta Khokhloven arteko zailtasunak zuen, baina azkenean biak zelairatzea erabaki du. Idiakez ez dabil oso txukun azken aldian, baina gauza jakina da denboraldi hasieran galestarrak kapitainari dagokion besokoa eman ziola eta orain, edozein modutan egonik ere, titular gisa zelairatzen du. Gaur euskarrian ariko da Xabi Alonsorekin batera. Khokhlov, aldiz, ezkerretik ariko da, punta-erdia Aranbururentzako utzita. Errusiarra ez dago oraindik sasoirik onenean, baina pixkanaka gerturatzen ari da jokatzeko beharrezkoa den gutxieneko mailara.

Zelai-erdian eskuinetik Tayfunek jokatu du, eta aurrealdean Jankauskasek. Aurrelariak bere azken bolada onari etekina atera nahiko dio gaur. Saikapeneko azken postuetan puntu aldea zabaltzen ari da. Atzera geratzeko oso arriskutsua da, hortaz, eta Betis mendean hartzea beste erremediorik ez du gaur talde txuri-urdinak.

Reala-Betis

Espainiako Ligako 16. jardunaldia

PPV **17:00**

Zelaia
Anoeta
(32.000 ikusle)

Arbitroa
Puentes Leira

Azken bost denboraldietako emaitzak

	2000-01
1999-00	1-0
1998-99	1-0
1997-98	2-0
1996-97	0-1

Partidak datua

32 aldiz jokatu du Betisek Donostian Lehen Mailan Realaren aurka eta lautan baino ez du irabazi. 22 aldiz Realak irabazi du eta seitan berdindu egin dute.

Partidako esaldia

"Donostian berdindu eta astelenean lider izatea baino nahiago dut irabazi eta astelenean bigarren postuan egotea" (Juande Ramos, Betiseko entrenatzailea).

Partidako protagonista


Tayfun Korkut. Turkiarra osatu da eta gaur berriz ere hasieratik ariko da eskuin hegalar sakontasuna eman asmoz.

Reala

Entrenatzailea: JOHN B. TOSHACK



		Jok.	Ira.	Ber.	Gal.	
Sailkapena	19.	Etxean	7	2	2	3
Puntuak	14	Kanpoan	8	2	0	6

Hamaikakoa


Aulkian: Asper, Barkero, Gabilondo, Pikabea, Loren, De Paula, Llorente eta Demetradze.

Betis

Entrenatzailea: JUANDE RAMOS



		Jok.	Ira.	Ber.	Gal.	
Sailkapena	2.	Etxean	8	6	1	1
Puntuak	27	Kanpoan	7	2	2	3

Hamaikakoa

Aulkian: Gaspercic, Mingo, Varela, Rivas, Cesar, Gudjonsson, Dani.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria

BETIS

Halloween gauetik zerura

Halloween sorgin gaua bada Ruiz de Lopera presidenteak astindu ederra eman zien Santu guztien egunaren bezperaren gau horretan Betiseko sorginei. Benjamin jokariaren etxean bildu ziren hainbat jokari gau horretan, etxeko bigarren solairuan diskoteka bat duelako. Goizaldeko ordu txikietan, ordea, nor agertuko etxean eta Lopera presidentea, Juande Ramos entrenatzailea eta prestatzaile fisikoa alboan zituela. Zer esan ugari eman zuen festa hark, baina, kontuak kontu, harrezkero bolada onean dira andaluziarrak, eta Zaragozaren aurka galdu zutenetik hiru garaipen segidan eskuratu dituzte.